



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 11

20. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 15ean eginitako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Helburua (5. or.).</p> <p><b>III.</b> Norainokoa (5. or.).</p> <p><b>IV.</b> 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezkotasuna (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Udalaren 2013ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).</p> <p><b>V.</b> Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).</p> | <p>V.1. 2013ko aurrekontuaren betetze-maila (9. or.).</p> <p>V.2. 2013ko aurrekontu emaitza (9. or.).</p> <p>V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (9. or.).</p> <p>V.4. 2013ko abenduaren 31ko egoeraren balantzea (11. or.).</p> <p>V.5. Galeren eta irabazien kontua 2013an (12. or.).</p> <p><b>VI.</b> Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Langileak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Inbertsioak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Hirigintza (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. Berrikilan S.L. sozietatea (20. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (22. or.).</p> <p>Berriozarko Udalak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganberak eman dien erantzuna (23. or.).</p> <p>Eranskina. Udalaren oroitidazkia.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta honako web helbidean: <a href="http://www.cfnavarra.es/camara.comptos">www.cfnavarra.es/camara.comptos</a>).</p> |
|--|--|

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Berriozarko udalerrak 2,71 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 9.605 biztanle dauzka.

Berriozarko Udalak ez du erakunde autonomorik, baina bai sortu ditu zuzeneko kudeaketarako zenbait organo Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 192. artikulua babesean; organo horiek zeinek bere atal berezia dute aurrekontuaren baitan, baina izaera juridikorik ez dute. Hartara:

- Kultura-koordinatzailea, kultura sustatzeko.
- Kirol Patronatua, kirola sustatzeko.

2013ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako eskubideak (2013)	Langileak, 2013-12-31n
Udala	6.514.713	6.337.135	90

Berrikilan, S.L. izeneko udal enpresa publikoa sortu da 2011ko abenduan, 3.300 euroko kapital sozialarekin. Haren hasierako xedea, 2012tik, Udalaren kirol instalazioak kudeatzea da. 2012an, enpresa publiko horri enkargatu zaio Udalaren zenbait lokal garbitzea. Enkargu hori 2013tik aurrera gauzatu da.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira.

Entitatea	Diru-sarrerak	Gastuak	Emaitza	2013ko batez besteko langile kopurua
Berrikilan S.L.	982.206	979.763	2.443	45

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- Iruñerriko Mankomunitatea: hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

- Antsoain, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak emateko.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan erotan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Iruñerria	172.742
Gizarte Zerbitzuak	165.458

Burlatan dagoen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (EEZB) ere parte hartzen du.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira.

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Sozietate publikoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua		X		
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola	X			
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Konsumitzaileen arreta zerbitzua			X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak	X			
Kirol-jardueren kudeaketa			X	
Udal kiroldegiak				X
Babestutako enplegu soziala		X		
Diru-bilketa exekutiboa			X	

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2013ko otsailaren 27an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2014ko abuztuaren 25eko Osoko Bilkurak 2013ko ekitaldiko kontu orokorra onetsi zuen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren in-guruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Berriozarko Udaleko eta Berrikilan enpresa publikoko langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Berriozarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- 2013an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia zenbateraino bete den.
- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA

Berriozarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Berrikilan sozietate publikoari dagokionez, sozietateak egindako balantzea eta emaitzen kontua aurkezten ditugu (auditatu gabe daude), eta iruzkin batzuk egin ditugu sozietateari buruzko alderdi garrantzitsuenei buruz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontu-sail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarriko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

#### IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Berriozarko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

2012ko galeren eta irabazien kontua emaitzan aplikatzerakoan, akats bat egin zen zenbatekoekin. Horrek eragin du 2013ko emaitzen kontuko saldoa bat ez etortzea balantzearen egoera-orrian islatu-takoarekin. Kontuak itxita daudenez, zuzenketa 2014ko ekitaldian eginen da.

Aurreko paragrafoan aipatutako salbuespenak alde batera utzita, Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fideltasunez erakusten ditu, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta diru-sarrereren aurre-kontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egindako eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2013ko ekitaldian Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

##### IV.3. UDALAREN 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontuak 5,91 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 26 –hau da, 1,5 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 7,5 milioikoak dira. Aldaketa horiek inbertsioen eta beren finantzaketaren atalean dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 6,51 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 87ko betetze-maila izan dute. Gradu horren justifikazioa da inbertsioen kapituluak ehuneko 48ko betetzea duela, aurrekontuaren aldean.

Aitortutako eskubideak 6,34 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 85eko betetze-maila izan dute; erantsi den diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetatik kanpo uzten bada, ordea, ehuneko 102ko betetze-maila ateratzen da.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 89 eta ehuneko 11 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 98 dira; diru-sarrera horien ehuneko 48 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	48
Inbertsioak	11	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	2
Finantza-zama	0	Zorduntzea	0
<b>Guztira</b>	<b>100</b>		<b>100</b>

Hona Udalaren 2013rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2012tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2012	2013	Aldearen %, 2013/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.604.313	6.514.713	-39
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	9.638.139	6.514.713	-32
Likidatutako eskubideak, guztira	6.609.949	6.337.135	-4
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	6.609.949	6.337.135	-4
Gastuen betetzea (%)	83	87	
Diru-sarreraren betetzea (%)	52	85	
Ordainketak (%)	94	94	
Kobratutakoa, %	91	92	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.109.827	5.789.166	-5
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.097.744	5.788.573	-5
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	3.528.313	725.547	-79
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	966.174	0	-100
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.059.973	6.208.633	2
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.137.549	3.198.973	2
Kapitalaren eta Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (6. kapitulutik 9.era)	549.976	128.501	-77
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	49,18	48	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	51	55	
Saldo ez finantzarioa	-3.028.191	-177.579	-94
Aurrekontu-emaizta doitua	-109.421	499.841	-557
Aurrezki gordina	-37.771	420.060	-1.212
Finantza-zama (3.etik 9.era)	978.256*	593	-100
Aurrezki garbia	-1.016.027*	419.467	-141
Zorpetze maila (%)	16,14*	0,01	
Zorpetze muga (%)	-0,62	6,77	
Zorpetze-ahalmena (%)	-16,77*	6,76	
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.174.406	3.906.376	-6
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	806.475	1.104.593	37
Zor bizia (*)	0	0	
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak	16,14*	0	

\* Udalak 2012an aurrez kitatu zuen 2004an emandako kreditu bat, 1.412.100 eurokoa, zeinetatik 891.853 euro baitzeuden ordaintzeko. Aparteko eragiketa hori kontuan hartuta, honakoak izanen lirateke 2012ko datu homogeneoak:

- Finantza zama: 86.404 euro.
- Aurrezki garbia: -124.175 euro.
- Zorpetze-ahalmena: % -2,05.
- Zorpetze maila: % 1,42.
- Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak: % 1,42.

2013an, Udalak ehuneko 39 gutxiago gastatu du aurreko ekitaldian baino, eta diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko lau txikiagoak izan ditu. Gastuetan izandako beherakada hori, ia 4 milioikoa, funtsean azaltzen da inbertsioen kapituluak -2,8 milioi euro- eta finantza-pasiboetan -0,9 milioi euro- izandako gutxitzearengatik.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bosteko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko bi egin dute gora.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioaren balio negatiboa jaitsi egin da, 2012an 3,03 milioikoa izatetik 2013an 0,18 milioikoa izatera igaro baita; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izan izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak.

Aurrekontu-emaizta doitua 500.000 eurokoa da; aurreko urtean, berriz, -109.000 eurokoa izan zen.

2013an, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia askoz ere altuagoak dira 2012ko balioak baino; izan ere, positibo bihurtu dira, 2012an zorraren kitatze aurreratua egin baita.

Zorpetzerik ez dauka, eta ehuneko 6,77ko muga du; horregatik, hain zuzen, badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 3,9 milioikoa da, eta ehuneko sei egin du behera 2012koaren aldean. Gastu arruntetara bideratutakoa ehuneko 37 igo da; izan ere, 2012an 0,81 milioikoa izatetik 2013an 1,10 milioikoa izatera iragan da.

Balantzeko maileguen atalaren zenbatekoa 1996an jasotako aurrerakin bati dagokio.

Laburbilduz, 2012tik 2013ra, saldo ez finantzarioak ehuneko 94 egin du hobera, nahiz eta oraindik ere negatiboa izaten jarraitzen duen; baina, aurrekontu-emaiza doitua, aurrezki gordina eta aurrezki garbia 2012an negatiboak izatetik 2013an positiboak izatera iragan dira, eta zorpetzerik ez dago. Hala eta guztiz ere, oroitidazkian esaten da aurrezki gordina igotzeko beharra dagoela, kapitaleko gastu berriei ekiteko.

Bestalde, hirigintzako kudeaketari erreparatuta, indarra duen planeamendua ia buruturik dago, eta plan berria egiten ari da.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-177.578
Berrikilaren emaitza	2.443
Kontabilitate nazionaleko doikuntzak	-224.021
Finantzaketa-beharrak	-399.156

Ikusi da Berriozarko Udalak ez dituela betetzen finantza-egonkortasunaren baldintzak, baina bai gastuaren araua, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012an, ehuneko 1,7 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta ez baitu zorrik. Egonkortasunaren ez-betetze hori zuzendu egin da plan ekonomiko-finantzario bat eginez; plan hori diruzaintza-gerakina aplikatzean datza.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, 2012ko txostenean jasotako aholku nagusiak kontuan hartu dira; kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen aurrekontuak ezarritako epeetan onesteari dagokion aholkua, ordea, ez da bete, ezta Udalaren hirigintza-planeamendu berri bat idazteari dagokiona ere.



**V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira 2013ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

**V.1. 2013ko AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langileria gastuak	3.455.881	-42.037	3.413.844	3.348.273	98	3.292.732	55.541	2
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.670.263	100.412	1.770.675	1.659.060	94	1.533.342	125.718	8
3. Finantza-gastuak	1.200	0	1.200	593	49	593	0	0
4. Transferentzia arruntak	778.434	50.351	829.085	781.240	94	700.169	81.071	10
6. Inbertsio errealak	0	1.404.991	1.404.991	675.547	48	558.212	117.335	17
7. Kapital-transferentziak	0	50.000	50.000	50.000	100	49.328	672	1
<b>8. Finantza-aktiboak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.905.778</b>	<b>1.563.717</b>	<b>7.469.795</b>	<b>6.514.713</b>	<b>87</b>	<b>6.134.376</b>	<b>380.337</b>	<b>6</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.083.706	0	2.083.706	2.278.777	109	1.971.697	307.081	13
2. Zeharkako zergak	60.000	0	60.000	45.130	75	38.407	6.723	15
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	928.615	0	928.615	875.066	94	773.297	101.769	12
4. Transferentzia arruntak	2.711.625	5.085	2.716.710	2.899.140	107	2.838.157	60.983	2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	122.132	0	122.132	110.520	90	102.812	7.707	7
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	309.294	309.294	128.501	42	93.705	34.797	27
8. Finantza-aktiboak	0	1.249.339	1.249.339	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.906.078</b>	<b>1.563.717</b>	<b>7.469.795</b>	<b>6.337.135</b>	<b>85</b>	<b>5.818.075</b>	<b>519.059</b>	<b>8</b>

## V.2. 2013ko AURREKONTU EMAITZA

Kontzeptua	2012	2013
+ Aitortutako eskubideak	6.609.949	6.637.135
- Aitortutako betebeharrak	10.604.313	6.514.713
= Aurrekontu-emaiza	-3.994.634	-177.579
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	500.000	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	3.384.944	677.419
= Aurrekontu-emaiza doituia	-109.421	499.841

## V.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012	2013
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	676.510	789.838
(+) Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	577.934	519.055
(+) Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	863.410	1.070.820
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	90.852	142.053
(+) Ordainketen itzulketa	0	25
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	778.901	875.727
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	76.785	66.387
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	836.720	562.815
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	627.335	380.337
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	18.794	21.834
(+) Diru-sarreren itzulketak	456	456
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	25.451
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	190.134	185.639
(+) Diruzaintzako funts likidoak	4.334.616	3.679.353
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	4.174.406	3.906.376
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	3.367.931	2.801.783
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	806.475	1.104.593

## V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZEA

## Jardunean

Deskribapena	2013	2012
A. Ibilgetua	28.610.758	29.393.467
1. Ibilgetu materiala	28.393.274	29.175.983
2. Ibilgetu ez-materiala	210.281	210.281
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4. Herri-ondasunak	0	0
5. Finantza-ibilgetua	7.204	7.204
C. Zirkulatzaila	4.533.664	6.330.014
8. Zordunak	751.948	753.295
9. Finantza-kontuak	3.704.804	4.362.119
10. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	76.912	1.214.599
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>33.144.422</b>	<b>35.723.481</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A. Funts berekiak	31.977.834	34.298.040
1. Ondarea eta erreserbak	19.095.804	21.544.511
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3. Kapitaleko diru-laguntzak	12.882.030	12.753.529
C. Epe luzeko hartzekodunak	480.810	480.810
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	480.810	480.810
D. Epe laburreko hartzekodunak	685.778	944.631
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	588.266	836.720
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	97.512	107.910
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>33.144.422</b>	<b>35.723.481</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA 2013an

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3	Hasierako izakinak		3	Bukaerako erosketak	
39	Izakinen balio-galtzeen hornidura		39	Izakinen balio-galtzeen hornidura	
60	Erosketak		70	Salmentak	574.239 593.218
61	Langile-gastuak	3.357.984 3.540.460	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	347.267 502.574
62	Finantza-gastuak	593 10.194	72	Ekoizpenarekin eta inportazioarekin lotutako tributuak	1.593.931 1.706.179
63	Tributuak	5.770	73	Errentaren gaineko zerga arruntak	452.741 451.488
64	Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.643.579 1.791.434			
65	Gizarte prestazioak		75	Ustiapenerako diru-laguntzak	
66	Ustiapenerako diru-laguntzak		76	Transferentzia arruntak	2.899.140 2.700.965
67	Transferentzia arruntak	781.240 770.434	77	Kapitalaren gaineko zergak	277.235 59.134
68	Kapital-transferentziak	50.000 43.784	78	Bestelako diru-sarrerak	64.082 46.415
69	Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	2.135.654 1.805.884	79	Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	778.901 700.882
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo hartzekoduna)			Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo zorduna)	987.286 1.201.336
	Guztira	7.974.820 7.962.191		Guztira	7.974.820 7.962.191

## Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80	Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	987.286 1.201.336	80	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	
82	Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)		82	Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	45
83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)		83	Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	
84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	20.808 11.085	84	Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	
89	Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)		89	Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.008.048 1.214.599
	Guztira	1.008.093 1.214.599		Guztira	1.008.093 1.214.599

**VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere anto-lamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

**VI.1. ALDERDI OROKORRAK**

- 2013ko aurrekontua 2013ko otsailaren 27an onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2013ko fakturarik, 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Udalak 2013an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordainketengatik.
- Udalak aurkeztu duen oroitidazkian zerbitzuen kostuaren azterketa egiten da, eta tasa, prezio publiko eta diru-laguntzen bitartez kostu hori zenbateraino estali den azaltzen da.
- Fidantzen, kutxaren eta entregen kontzeptuan antzinako saldo batzuk badaude, exekuzioan daudenak. 150.000 euro egiten dute.
- Jasotako informazioaren arabera, auzi hauek azpimarratu behar ditugu:
  - a) "P.O. 57/2013" Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Estatuko Abokatutzak aurkeztua, 2012ko abenduko aparteko soldata dela-eta. Prozesua etenik dago, uztailaren 15eko 12/2012 Errege Lege-dekretuaren aurka Nafarroako Parlamentuak aurkeztua duen konstituzio-kontrakotasuneko erre-kurtsoa ebatzi arte.
  - b) 952/2013 zenbakiko prozedura arrunta, Berriozarko Udalak aurkeztua. Nafarroako Gobernuko Barne zuzendari nagusiaren apirilaren 16ko 2272/2009 zenbakiko ebazpena deuseza deklaratzeko egindako eskaria administrazioaren isilbidez ustez ezetsi izatearen aurkakoa da; izan ere, ebazpen haren bidez, Berriozarko kidegoko udaltzain izateko bi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onestea.*
- *Fidantzen saldo zaharrak aztertzea eta, hala badagokio, arautzea.*

## VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,35 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 51 eta gastu arrunten ehuneko 58.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko bost jaitsi da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2012	2013	
Goi-karguak	1.286	854	-34
Funtzionarioak	1.426.703	1.340.420	-6
Lan-kontratudun finkoak	437.968	415.394	-5
Aldi baterako lan-kontratudunak	573.442	541.636	-6
Gizarte-zamak	1.006.246	990.337	-2
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>3.525.957</b>	<b>3.348.273</b>	<b>-5</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko otsailaren 27an onetsi zuen 2012ko plantilla organikoa. Bertan, 90 lanpostu daude jasota, eta horietatik 48 lanpostu, ehuneko 53, bete gabe daude. Hona xehetasunak:VI.2. LANGILEAK

	Lanpostu- kopurua	Jardu- nean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hu- tsak
Funtzionarioak	49	35	14	7
Lan-kontratudun finkoak	39	7	32	31
Behin-behineko langileak	2	0	2	2
<b>Guztira</b>	<b>90</b>	<b>42</b>	<b>48</b>	<b>40</b>

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 90 pertsonak egiten zuten lan. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua Udalean
Udalbatzako kideak	1
Funtzionarioak	36
Lan-kontratudun finkoak	6
Aldi baterako lan-kontratudunak	47
<b>Guztira</b>	<b>90</b>

2012ko ekitaldiarekin alderatuta, 2 langile gutxiago ditu Udalak. 92. langile dauzka.

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Udalbatzako kideak	1
Idazkaritza	2
Giza baliabideak	1
Jendeari arreta ematea	5
Polizia	14
Haur Eskola	20
Ikastetxea	2
Ekonomia-gaiak	4
Garbiketa	5
Hirigintza	3
Lorategiak	5
Obrak	6
Musika eskola	18
Euskara	1
Kultura	1
Gazteria	1
Kirola	1
<b>Guztira</b>	<b>90</b>

Azpiratu behar dugu Udaltzaingoko, haur eskolako eta musika eskolako langileak direla Udaleko langile guztien ehuneko 58.

Udalaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta administrazio-kontratudunen 2013ko lan-baldintzei buruzko erabakian –2012ko abuztuaren onetsi zen– osagarri hauek ezarri ziren:

- Konpentsazioko osagarria, irents daitekeena, 68/2009 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenagotik gradua eta familia-laguntza jaso dituzten administrazio-kontratudunentzat.
- Ehuneko biko berariazko osagarria udaltzain laguntzaileentzat.
- Ehuneko biko berariazko osagarria haur eskolari atxikitako langileentzat.

Nafarroako Gobernuak hala eskaturik, 2013ko otsailean Osoko Bilkurak deuseztatu egin zituen konpentsazioko osagarria eta Haur Eskolako, “negoiazio kolektiboan soilik bidera daitekeen gaia” izateagatik. Udaltzain laguntzaileen osagarriari eutsi zaio, lan-baldintzei buruzko aurreko erabakiaren testuan zegoen akats bat zuzendu delako haren bitartez.

2012ko otsailean, Osoko bilkurak enplegu eskaintza publiko bat onetsi zuen 2013-2015 legegintzaldirako, 8 lanpostu betetzeko: zerbitzu anitzetako hiru langile; bi administrari laguntzaile; arkitekto bat; ethezain bat, eta giza baliabideen arduradun bat.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2013an izoztu dira, eta egindako atxikpenak zuzenak dira. Halaber, 2013an egin diren kontratu berri batzuk aztertu ditugu, eta zuzen izapidetu direla egiaztatu dugu.

## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 1,66 milioi euro egin dute 2013ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 25 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 29 egiten dute. 2012. urtearen aldean, ehuneko zortzi jaitsi dira.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditante hau berrikusi da (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Ludotekarako laguntza	Laguntza	Irekia, Europan publizitate-terik egin gabe; eskaintza onena	35.000	5	34.815

Espeditante honi eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastu horiek behar diren fakturekin justifikatuta daudela, egoki kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela egiaztatu da.

## VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,83 milioi egin dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 13 dira.

2012. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko bi igo dira.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%) 2012/2013
	2012	2013	
Foru Komunitateko Administrazio Orokorri	14.259	28.259	98
Mankomunitateei	370.889	338.200	-9
Familiei	41.898	59.797	43
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	69.541	95.856	38
Beste transferentzia batzuk	273.847	259.128	-5
4. Transferentzia arruntak	770.434	781.240	1
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	43.784	50.000	14
7. Kapital-transferentziak	43.784	50.000	14

Honako hauek dira 2013an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Eskualdeko garraioa	172.742
Gizarte zerbitzuak	165.458
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	31.561
Mendialdea Kirol Elkarte	32.140
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	29.300
Auzokidea Laguntzeko Elkarte	35.000
Eraikinen zaharberritzerako laguntzak	50.000

Udalak badu diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra, 2012ko martxoan behin betiko onetsia. Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ordenantza horretatik kanpo daude, berariazko ordenantza batean arautu baitira.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.



## VI.5. INBERTSIOAK

2013. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,40 milioi) ehuneko 48 bete da, eta 0,67 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 10.

Kapitulua betetze-maila apala izan da, eta, batez ere, zor zaio Berriozarko etorbidearen argite-ria berritzeko obraren aurrekontuko zenbatekoa eta gaztegunerako obretarako aurrekontua bete ez izateari edo aurreikusitakoa baino erritmo txikiagoan bete izateari haur eskolako obretarako eta kultur etxeko ekitaldi aretorako jarritako diru-kopuruen ondorioz; izan ere, aurreikusita zegoen baino erritmo apalagoan bete da obra horien aurrekontua.

2012rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 80 –hau da, 2,8 milioi– egin dute behera.

Honakoak izan dira 2013an egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak).

Inbertsioa	Kopurua
Haur parkeak	54.275
Kiroldegiko aparatuen aretoa zabaltzea	134.768
Gazteguneko obrak	68.277
Igerilekuko aldagelak berritzea	21.436
Kiroldegiko ur beroaren sistema egokitzea	23.010
Berriozarko etorbidearen berrurbanizatzea	127.140

2013an esleitutako ondoko espedienteak aztertu dira: (zenbatekoak BEZik gabe).

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	2013an bete
Berriozarko etorbidearen berrurbanizatzea	Obra	Negoziatua, Europar publikizaterik egin gabe; eskaintzarik onena	141.090	9	98.777	99.547 <sup>1</sup>
Kiroldegiko aparatuen aretoa zabaltzea	Obra	Irekia, Europar publikizaterik egin gabe; eskaintza onena	133.692	2	128.538	102.333
Gaztegunerako zimentatze- eta saneatze-lanak	Obra	Irekia, Europar publikizaterik egin gabe; eskaintza onena	39.834	4	27.884	33.146 <sup>1</sup>

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

<sup>1</sup> Obrak egiteko prezioa handiagoa izan da, enpresa kontratistari egoztekoak ez zaizkion aldaketak direla medio.

## VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,34 milioioak izan dira; ehuneko 98 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko bi, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak -3,20 milioi euro– eta transferentzia arruntak -2,9 milioi euro– nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 85ekoa izan da.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2013ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko lau murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarrerak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2012	2013	2013/2012
1. Zuzeneko zergak	2.011.021	2.278.777	13
2. Zeharkako zergak	205.780	45.130	-78
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	920.748	875.066	-5
4. Transferentzia arruntak	2.700.965	2.899.140	7
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	221.459	110.520	-50
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.059.973	6.208.633	2
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	-
7. Kapital-transferentziak	549.976	128.501	-77
8 Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	549.976	128.501	-77
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>6.609.949</b>	<b>6.337.135</b>	<b>-4</b>

Nabarmentzekoa da zeharkako zergetan eta kapital-transferentzietan izan den murrizketa.

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2012	2013	2013/2012
Lurraren kontribuzioa	1.259.250	1.374.019	9
Ibilgailuak	451.488	452.741	0
Lurren balio-gehikuntza	59.134	277.235	369
JEZa	241.148	174.782	-28
EIOZa	205.780	45.130	-78
<b>Guztira</b>	<b>2.216.800</b>	<b>2.323.907</b>	<b>5</b>

Antzematen diren alde nagusiak dira lursailen balioari dagokiona, zeinak 2013an ehuneko 369 egin baitu gora, eta EIOZari dagokiona, zeinak 2013ko ekitaldian ehuneko 78 egin baitu behera.

Udalak aplikatutako tasak eta Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen direnak alderatu ditugu, eta honakoak ikus daitezke taula honetan:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2214	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,1etik 3,3ra	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	8,17	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2012koen aldean, lurraren kontribuzioarena salbu, horrek ehuneko hiru egin baitu gora.

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean egindako azterketaren bitartez, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

#### VI.7. HIRIGINTZA

Berriozarko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra ize-neko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta ofizial administrari bat.

Gainera, Udalak badu kanpoko aholkularitza juridikoa hirigintzaren arloan, abokatu batek ematen diona. Horrek 11.616 euroko gastua ekarri du 2013an.

1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna. 20 urte geroago, ia erabat beteta daude arau horietan aurreikusitako hirigintza-helburuak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeke. Foru lege horretako estipulazioak betetze aldera, Udalak 2005eko uztailean esleitu zituen Udal Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Lurraren Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE), udal plan orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dagoena, 2006ko otsailean onetsi zen. Plan berria idazteko lanak 2007an esleitu ziren, eta txosten hau idazteko datan amaitu gabe daude.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa egokietarako.

Udalak badu Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro espezifiko bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak agindu bezala; haren osaera zehatz-mehatz azaltzen da Udalaren oroitidazkian. Halaber, Udalak hirigintza-hitzarmenen erregistroa kudeatzen du.

*Udal Plan berria idazteko prozesua behingoz bukatzea gomendatzen dugu.*

## VI.8. BERRIKILAN S.L. SOZIETATEA

2011n sortu zen, baina 2012an hasi da jarduten. 2012ko urtarrilean enkargatu zitzaion Berriozarko Udalaren kirol zerbitzuen prestazioa kudeatzea; aurrez, zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren zerbitzu horiek.

Horretarako, Berriozarko kirol eremuko instalazioak hamar urterako errentan eman zitzaizkion. 2013an ordaindu beharreko kopurua 12.301 euro da, gehi dagokion BEZa.

2012an, Udalaren lokalak garbitzeko lanak enkargatu zitzaizkion. 2013ko irailean hasi da lan hori, eta urte berean, hain zuzen, Mendialdea ikastetxe publikoaren garbiketa ere enkargatu zaio.

Sozietateak 2.443 euroko etekina lortu du.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da Udalak kalkulatu duela kirol eremuaren amortizazioaren kopurua 200.000 euro baino gehixeago izanen dela.

Kirol instalazioen kudeaketari dagokionez, ulertzen dugu ezen, araubide juridikoari erreparatuta, nahasgarri gerta daitekeela Udalak zerbitzuen zeharkako kudeaketaren modalitatea –errentamendua– erabiltzea, udal sozietate publiko bati egindako enkargu batekin, azken horrek zerbitzuen zuzeneko kudeaketa eskatzen baitu.

Horri dagokionez, ikuspuntu juridiko batetik, zerbitzua enpresa publikoaren bidez kudeatu nahi bada, egokiagoa izanen litzateke instalazioak hari laga eta haien kudeaketa enkargatzea, Udalak kudeaketa horren emaitza bere gain hartuta.

Hona sozietatearen balantzea eta emaitzen kontua abenduaren 31n.

Galeren eta irabazien kontua 2013ko abenduaren 31n

Deskribapena	2013ko ekitaldia
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	968.206
4 Arnikuntzak	-110.861
6 Langile-gastuak	-571.722
7 Bestelako ustiatze-gastuak	-289.664
9 Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	14.000
10 Hornidurak: Kaudimen gabeziak	-3.500
11 Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0
12 Beste emaitza batzuk	-4.016
A Ustiaketaren emaitzak	2.443
C Zerga aurreko emaitza	2.443
17 Mozkinen gaineko zerga	0
Ekitaldiko emaitzak	2.443

## 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

## Jardunean

Deskribapena	2013ko ekitaldia
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>0</b>
Zordunak	87.776
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	49.777
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>137.553</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>137.553</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2013ko ekitaldia
Kapital soziala	3.300
Erreserbak	24.112
Galerak eta irabaziak, 2013-12-31n	2.443
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>29.855</b>
Epe luzera eraturako fidantzak	170
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>170</b>
Zerbitzuak erostearen edo ematearen ondoriozko zorrak	35.713
Ogasun publikoa hartzekodun, BEZa eta PFEZa direla eta	47.896
Ogasun publikoa hartzekodun, sozietateen gaineko zerga dela eta	0
Gizarte segurantzaren erakundeak	12.704
Langileak	206
Epe laburreko hornikuntza	7.418
Ordainketen aldizkako ordainketak	3.592
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>107.529</b>
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>137.553</b>

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko abenduaren 10ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Berriozarko Udalaren 2013ko kontu orokorrari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenari erantzunez, honako iradokizunak egin nahi dizkizut, zeinak, nire ustez, baliagarri gerta baitaitezke bertan aztertzen diren gaietako batzuetan arrazoiak edo azalpenak emateko.

Lehena.- Aurrekontuak legedi indardunean ezarritako epean onesteko behin eta berriz egindako gomendioei dagokionez, jakitera ematen dizut Berriozarko Udalaren 2014rako aurrekontuak 2013ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onetsi zirela, eta 2015ekoak, berriz, 2014ko abenduaren 22ko Osoko Bilkuran.

Bigarrena.- Kirol instalazioen kudeaketari dagokionez, Berriozarko Udala, kirol instalazioak Berrikilan sozietate publikoari errentan emateko kontratua dela eta, merkatuaren barruan dagoen enpresaburu gisa hartu beharra dago. Instalazio horiek errentan ematen ditu eta, horrenbestez, BEZa errentamenduaren fakturazioan jasanaraz dezake, eta, aldi berean, instalazioan egiten diren inbertsioen BEZa jasaten du.

2013. urtean, Berriozarko Udalak 3.089,75 euro jasanarazi dizkio Berrikilani BEZaren kuotak direla eta, eta 40.621,85 euro jasan ditu, berriz, kiroldegian egindako inbertsioengatik ken daitekeen BEZaren kuotetan; horrek, azkenean, Udalaren aldeko 37.532,10 euroko saldoa ematen du.

Zerbitzua emateko erabiltzen den araubide juridikoari eta sor daitekeen nahasmenduari dagokionez, Udalaren ustez gaia nahiko argi dago, zeren eta zerbitzua zuzeneko kudeaketaren modalitatea erabiliz esleitu baita, enpresa publiko bati egindako kudeatzeko gomendio baten bitartez. Alabaina, enpresa horrek kudeaketa hori aurrera eraman ahal izateko, Udalak bere kirol instalazioetako batzuk errentan ematen dizkio.

Errentamendu hori kontratu baten gisara hartu beharra dago –hain zuzen ere instalazioen lagapen-baldintzak jasotzen duen kontratu bat da–, baina ez zerbitzuak kudeatzeko modu baten gisara, zeren eta Berrikilan sozietate publikoa jada zerbitzu publikoa kudeatzen ari baita.

Hirugarrena.- Udal plan berria idazteko prozesua behin betiko amaitzeko gomendioari dagokionez, honako adierazi behar dizut:

Plan hau 2005ean kontratatu zitzaion Carmelo Loperena buru zuen lantaldeari, eta aurrerapen fasera artekoteko lanak egin ziren.

Jendaurrean jartzeko prozesua ere egin zen, eta hari buruzko kasuko iradokizunak aurkeztu ziren.

Haiek ebatzi ondoren, Lurraldearen Antolamenduko Departamentuarekiko alde aurreko ituntze fasea hasi zen. Aldez aurretiko ituntze-fase hori hasi baino lehen, eta antzinako Iruñerriko 1999ko Eskualdeko Hirigintza Arauen RVP 8 Bidea zela-eta planeamendu-garapenean zeuden lan batzuen karietara, bilera bat egin zen Defentsa Ministerioaren ordezkartzarekin, eta hartan udal planeako proposamenaren zenbait alderdiri buruz hitz egin zen, eta haiei buruz jakinarazi zitzaigun ezinezkoa zela haien gauzatzea, zeren eta ondoko edo/eta hurbileko segurtasun arloetako lursailetan baitzeuden, eta, horrenbestez, Defentsa Ministerioak, Segurtasun Nazionalako legeen arabera, ez baitzuen garapena baimenduko.

Egoera horrek berarekin ekarri zuen planean birsailkatzeko proposatzen ziren lursail ia guztiek egungo izateari eutsiko ziotela, hau da, hirikoa ez den lurzoru izateari, edo, gehienez ere, lurzoru urbanizaezineko guneak izateari; horrek, eragotzi egiten zituen komunikaziorako egitura-bideen lotura-sistemak eta erabileren barne-sistema, eta Udalari, berriz, finantzak orekatzeko ezintasuna eragin zion –hain zuzen ere oreka hori bilatzen ari baitzen planeamenduko jarduketaren bitartez–. Defentsa Ministeriotik ez digute ordezeko aukera zehatzik iradoki, nahiz eta aukera bat baino gehiago bidali zaizkion.

Gainera, planak finkatu beharreko garapen jarduketak Defentsa Ministerioarekin adostu beharko liriateke.

Aldi berean, garapen fase honetan zehar, lurralde-antolamenduko planak izapidetu eta onesten dira Foru Komunitate osorako. Plan horiek nahitaez betebeharrekoak eta egokitzekoak dira ukitutako toki entitateentzat, eta horrek berarekin dakar zehaztapen egituratzaile berriak sartu behar izatea, jarduketa-esparruko udalentsat nahitaez egokitzekoak direnak. Zehaztapen horietako bat da aukeratarako arlo bat orokortzea segurtasun-

eremuek okupatutako eremuan edo trenbideari eustea; izan ere, azken horren desagerpena 3. lurralde-antolamenduko planaren aurretiko eskualde-planeamenduko agirietan jasota zegoen (Iruñerriko Hirigintza Arauak) eta funtsezkoa zen Berriozar berriaren hirigintza-garapenerako. ·

Inguruabar horiek guztiek beraiekin ekarri dute udal planaren oinarritzko proposamena aldatzea. Proposamen hori Defentsa Ministerioarekin adostu beharra dago, zeren eta Aitzoaingo kuartelaren segurtasun-eremuak ukitzen baititu; horretaz gainera, 3. lurralde-antolamenduko planaren zehaztapenen barruan proposamen bat egiten da.

Une hauetan, diseinuari dagokionez, konponbide batera iritsi gara, eta badirudi Defentsa Ministerioaren onespena lor litekeela, baina oraindik ere ez du horri buruzko txostenik eman, eta puntu honetatik aurrera, aldaketaren garrantzia dela-eta, beharrezkoa da berriz ere zerotik hasia, planeamendu-proposamen berri batekin, berriz ere aurrerapenen eta iradokizunen fasean.

Agerikoa da ezen, gaiaren egoera dela eta, Berriozarko Udalaren lurralde antolamendurako udal planaren behin betiko onespena ematek urrun gaudela, zeren eta berriz hasi baikara Aitzoaingo kuartelaren segurtasun-eremuen zabalerak eragindako arazoaren prozesuarekin; izan ere, eremu horiek etorkizuneko udal planaren hirigintza-kalifikazioaren xede diren ia lursail guztiak hartzen dituzte, bai eta 3. lurralde-antolamenduko planaren zehaztapenak ere, lursail horiei eta egungo trenbideari dagokienez.

Berriozarren, 2014ko abenduaren 4an

*Alkatea: Xabier Lasa Gorraiz*

#### **BERRIOZARKO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA**

Berriozarko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aurkeztuta, alegazio horiek txostenaren edukian eraginik ez dutela ulertuta, zeren eta txostenean iruzkindutakoari buruzko azalpenak edo zalbalpenak baitira, behin-behineko txostenari gehitu zaizkio eta txosten hori behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 10ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

